



Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
“GURASOTASUNA” Webgunea¹

www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/r45-gurahome/eu

Sarrera

Sarean zehar aurki daitezkeen tresna erabilgarrien artean, **familiekin lan egiten duten profesional**ei zuzenduriko webgune hau aurki daiteke. Bere izenak dioen bezala, gurasotasuna da bere oinarri teoriko-praktikoa, bere xedeari jarraiki, esparru ezberdinetan (gizarte gai, hezkuntza, osasuna eta legedian) familiekin diharduten profesionalentzat informazioa, prestakuntza eta esperientzien elkartrukerako espazioa eskaintzen du. Jakintza alor horretako aditu talde batek profesionalentzat burutu duen webgune honetan zehar, Euskal Autonomi Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan nabigatu daiteke eta ataritik abiatuta, erabiltzailea errekurso anitzetan murgil daiteke menuko aukera edo fitxa (*tab*) ezberdinak klikatuz.

Gurasotasuna hazkuntza eta hezkuntza prozesuak ulertzeko modu bat da. Beste hizkuntzetan “parentalidad positiva”, “positive parenting” edo/eta “parentalité positive” erabiltzen diren bitartean, “gurasotasuna” euskal termino bakarrak bere baitan hartzen du guraso lanean egokiro aritzeko gaitasuna, genero diskriminaziorik gabe. Hau horrela, guraso jardueran haurren beharizanak eta garapena dira bere abiapuntua, familia bakoitzaren testuingurua, gurasoaren trebetasun eta eskura dituzten errekursoak aintzat hartuz, haurren garapen hobereana bultzatzeko neurriak abian jarri.

Ekimen honek, Europar Kontseiluko Ministro Batzordeak barne hartzen dituen estatu-erabaki luzaturiko 19 gomendioan du jatorria. Bertan, gurasotasuna bultzatzeko politikak abian jartzea aholkatu eta haurrak hazi eta hezi behar duen pertsona orok baldintza eta errekurso egokiak eskura izatearen ziurtapena azpimarratzen da. Honen haritik, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte gaien Saileko Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak, “Familien Laguntzara Zuzenduriko Erakunde Arteko III Plangintza” (2011-2015) indarrean jarri zuen. Bertan, familiekin haurtzaro eta nerabezaroan hazte eta hezte konpetentziak bereganatzea sustatzen duten oinarri zientifikodun ekintza politikoak abian jartzeko beharra jasotzen da.

Helburu honetara zuzenduriko politikek oinarri enpiriko sendoa dute, ikerlan ezberdinek adierazi baitute, batetik, familia testuinguruak bizitza guztian zehar garapen psikologikoan eragin esanguratsua duela, eta bestetik, ebidentzian oinarritutako programek guraso konpetentzien garapenean duten eragin kortasuna. Ildo beretik, webgunean bertan azaltzen den bezala, familia testuinguruaren ezaugarriak sistematikoki –saillatzeko modu bat–, *Gurasotasunaren Curriculum Hoberena* (GCH) izenekoa da. Tresna honek, guraso gaitasun eta familia testuinguruak garapen psikologikoan duen eragina adierazten duten ikerketa esan-

1. Webgunea 2014ko maiatzean plazaratu zen eta erreseina hau, 2016ko apirilean egin da. Bertako edukia hilerio berritzeko akordioa dute egileek sustatzailearekin, hau horrela, edukia eguneratua izatea ziurtatzen da.

guratsuen datuetan oinarrituz, haurra eta bere garapena osotasunean behatzea eta azterzea ahalbidetzen duen ikuspegi sistemiko eta bateratua eskaintzen du. Honetarako, sailkapena lana errazteko bidea baino ez dela jakinik, GCHak haurraren garapenean inplikaturik dauden aldagaiak lau sailetan bereizten ditu, aldagai multzo hauek aldi berean elkarrekiko menpekotasun eta etengabeko erlazioa dutela azpimarratuz.

Lehen saila, *Garapen kognitibo eta linguistikoaren sustapena* da. Bertan goi mailako prozesu kognitiboak garatzera iristeko beharrezko aldordioak osatzen dituzten eguneroko ekintza, jarduera eta interakzioak biltzen dira. Besteak beste, jarduera hauen artean hauek azpimarra daitezke: irakurri eta ipuinak kontatzea, abestea, poesiak errezitatzeko, asmakizunekin aritzea, eta abar. Bigarren sailak, *Garapen sozioemozionalaren sustapenak beste hauek barne hartzen ditu*: emozioen adierazpen eta erregulazioa errazten duten klima sortzearen beharra, neba-arreben harreman kalitatearen garrantzia, komunikazio-afektu bidezko limite edo mugen ezarpena zein ardura norberegantzea eta abar. Hirugarrenak, *Testuinguru soziala eta ingurune fisikoaren antolaketa*, gurasoen arteko gatazketan presentzia, familian estresa suposatzen duten gertakarien agerpena, familia eta gizarte mailako laguntza sareak izatea eta haurrari eskaintzen zaizkion bizipenen aniztasuna aldagaiak biltzen ditu. Azken multzoan, *Zeharkako aldagaiak* biltzen dituen sailean, garapena sustatzeko guraso profila aldagaia azpimarratzekoa da. Honek, kalitatezko hazkuntza prozesua bermatzeko kompetentzia instrumentalak barne hartzen ditu, hala nola, guraso jardutearen norbere eraginkortasuna, enpatia, entzute aktiboa, garapenari buruzko teoria inplizituak eta garapen etapa ezberdinen ezagutza. Aldagaien edo gurasotasunaren ezaugarrien sailkapen honek, oinarri zientifikoen arabera gurasotasunaren alorrean burutzen diren edozein jarduera edo eta esku-hartzeren ebaluazioa egiteko tresna erabilgarria eskaintzen du. Eta bere sistematizazio erabilgarri hau dela eta, aztergai dugun web espazioko edukia GCHren sailkapen ildoan arabera burutu dira.

Hona hemen webgunearen egitura.

0. Ataria, 1. Gurasotasuna, 2. Prestakuntza, 3. Ikerlanak, 4. Ebaluazioa, 5. Programak, 6. Kontsultarako materialak, 7. Bloga

Jarraian menuko fitxak banan-banan aztertuko dira:

1. Gurasotasuna

Atal honetan, gurasotasunaren oinarri nagusiak zehazki deskribatzen dira eta hezkuntza zein hazkuntza prozesua behatzeko ikuspegi honen jatorri teorikoa osatzen duten txosten eta edukietara sarrera ematen da. Txosten horien artean hauek aurki daitezke: Europar Batasunak barne hartze dituen estatuei gurasotasuna eta bere politikak bultzatzeko “Ministro Batzordearen Nazioarteko Informea”, estatu mailako “Gurasotasunari buruzko txostena”, “Gurasotasuna sustatzeko praktikak” eta “Guraso-hezkuntza baliabide psikoedukatibo bezala”. Euskal Autonomi Erkidegoari dagokionez, eskuragarri daude “Haurren Eskubideei buruzko hitzarmena” eta “Familiaren txostena EAE” informea.

2. Prestakuntza

Espazio honek, familiekin lan egiten duten edo eta etorkizunean asmo horretan dabilzan profesionaleri gurasotasuna eta familiaren esku-hartzera bideratutako unibertsitate master, ikastaro eta mintegien berri ematen du. Webguneak, gaur egun, alor honen prestakuntzara eta promoziora zuzenduriko errekurtsoak biltzen ditu. Aldi berean, agerian uzten du ikuspegi osotu eta ez zatikatu batetik haurraren garapena behatzera eta bere sustapenera zuzenduriko prestakuntzan dagoen hutsunea. Honek, haurra eta bere garapenaren dimentsioak barne hartuko dituen diziplina arteko eta anitzeko ikuspegiaren prestakuntza sortzeko beharra adierazten du, profesionalak gurasotasuna sustatzeko ezagutza eta errekurtsoak gara ditzaten.

3. Ikerlanak

Erabiltzaileak, fitxa honen bidez GCHaren egituraren arabera sailkaturiko artikulu zientifikoen munduan erraz murgiltzeko aukera du. Artikulu bakoitzaren fitxak, argitalpen osorako sarre-raz gain, erabilpen handikoak diren datu tekniko ezberdinak eskaintzen ditu. Hala nola, artikulua- ren identifikazio datuak, laburpena eta aurkikuntzen inplikazio praktikoak. Azken honek, ikerketatik akziora jauzi egitea sustatzen du eta profesionali oinarri zientifikodun errekurtso eta jarraibideak eskaintzen dizkie, familiei helarazteko modukoak, beraien eguneroko hezte lanean dagokien gaitasun maila beregana dezaten. Edukietan barneratuz, honen adibide, familia bizitzan “aitaren parte hartzeari” dagokion ebidentzia plazaratzen da. Oinarri horretatik, profesionalak *bigarren hezte figuraren* parte hartzeak dakartzan onuren kontzientzia hartzeko ikuspegi aplikatu bat eskaintzen du.

4. Ebaluazioa

Sail honetan balioetsitako galdesorta eta eguneratutako ebaluazio erremintak aurkezten dira, familiekin aplikatu eta familia testuinguruko aldagai esanguratsuenak ebaluatzeko. Profesionalen komunitatearen esku utzitako material honen sailkapena, GCHaren dimentsio eta irizpideen arabera burututa dago. Hori horrela, dimentsio bakoitzeko zehazki aukeraturako eta erabilpen praktikoa duten tresnak aurki daitezke. Adibidez, familia testuingurua ebaluatzeko sailean, besteak beste HOME (Ingurunearen eta familia giroaren behaketa eskala) aurkezten da. Garapen kognitibo eta linguistikoa ebaluatzeko erreminten artean, MSCA (Mccarthy, haurrentzako garapen eskalak) eta garapen sozioemozionala ebaluatzeko diseinatutako tresnen sailean BASC (Haur eta nerabeen jokabideen ebaluazio sistema). Erreminta bakoitzaren fitxak, informazioa kontsultatu, lortu edo sakontzeko bidea errazten du, familiekin lanean bere erabilgarritasuna areagotzeko asmoz. Bestalde, “beste ebaluazio-tresna” fitxategian CIBERSAM bankura sarbidea dago, osasun mentaleko profesionalentzat tresna eta metodologia bilatzaile praktikora hain zuzen.

5. Programak

Atal honek, oinarri zientifikoa eta familien heziketa eta haziera lanean eraginkortasun frogatua duten oinarri zientifikodun programak aurkezten ditu. Bertatik jo daiteke, adibidez, “*Sexumuxu- Sexu Heziketarako Programa*” eta “*Gurasoak*” bezalako bertoko programetara, estatu mailako “*Formajoven*” edo eta “*Educar en Positivo*” eta nazioarteko “*Incredible Years*” programetara. Alor honetan, programetara sarrera zuzenaz gain, *Gurasotasun Programak Ebaluatzeko Sistema* ere eskuragarri dago, zeinak, GCHak zehazten dituen oinarrien arabera, gurasotasunera zuzenduriko programen kalitatea, oinarri zientifikoa edo eta diseinua gidatzea ahalbidetzen duen.

6. Kontsultarako materialak

Sail hau praktikotasun handikoa izan daiteke, bertan profesionalak aurki baititzakete, bibliografia, ebidentzian oinarritutako programen datu baseak, gida, informe, elkarrizketa, web-guneetara estekak eta gaiarekin lotura duten bideoak. Bere xedea, profesionalentzat aplikazio praktikorako erabilgarriak diren materialak eskuragarri uztea da, familiei helarazteko eta bakarkako zein taldeko esku-hartzetan beraiekin erabil eta gurasoek beren seme-alabekin gurasotasunaren printzipioak praktikan jar ditzaten.

7. Bloga

Espazio honek, helburura zuzenduriko ekimenen, estrategien eta jarduteko eren inguruko informazioa elkartrukatzeko aukera eskaintzen du. Bertan, gurasotasunaren inguruko informazio eguneratua ikusten da, tailer, elkarrizketa, kongresu, eztabaida-leku eta abarren xehetasunak aurkeztuz. Atal hau, aberastasun eta garrantzi handikoa da, profesionalak informazioa emateaz aparte, argitaratutakoaren inguruan hausnarketa edo eta iritzia eman baitezakete.

Puntu honetan, azpimarratzekoa da, atarian kokatua dagoen *Agora* izeneko foro edo eta eztabaida-leku berritzailea. Profesionalen arteko komunikazioa, elkartrukea eta hausnarketara zuzenduriko gune irekia, non interesa edo eta kezka eragiten dien gaiak bota eta erantzun ditzaketen. Epe batean luzaturiko gaiak erantzunik ezean, webguneko administrariak kontsulta edo interes gaiari irteera ematen die. Erabiltzaileen sarrerak azertuaz, agerikoa da profesionalen parte hartze aktiboak dakarren aberastasuna. Bertan, eguneroko praktikako behar eta zalantzak planteatu eta aniztasun handiko aldagaien inguruko kontsultak luza baitaitezke, hala nola aitona-amonen parte-hartzea haurren zaintzan, anai-arrebekin esku-hartzea, autonomiaren sustapena, joko libre eta abar luze bat. Profesionalak buruturiko sarreren artean, adibide gisa, bikote bereizketa konplexuak bideratu eta gestionatzeko kalitateko errekurtsioen inguruko informazioaren eskaera bat aurkitzen da. Bertan, Eusko Jaurilaritzako Familia Bitartekaritza eta ZEUK ESAN zerbitzuen berri ematen da eta profesionalak zerbitzu hauetan familia bakoitzaren ezaugarrietara egokituko diren orientabideak aurki ditzakete.

Familiekin lan egiten duten profesionalen beste adibide bat aipatzearren, gurasoek seme-alaben jolas sinbolikoa sustatzeko gaitasuna ebaluatzeko sistemak inguruko kontsultaren erantzuna dago. Erantzunean, ebaluazio ataletan jolas sinboliko barmen hartzen duten BAYLEY eta MERRIL- PALMER garapen eskalak aurkezten dira, baita HAEZI-ETXADI SCALE familia testuinguruan jolas sinbolikoa ematen den edo ez ebaluatzeko bidea ere. Ebaluazio horietatik abiatuta, profesionalak gurasoekin jolas sinbolikoa sustatzeko bideak jorra ditzakete.

Horretaz gain, atal honek profesionalen beharrak aztertzei aukera eskaintzen du, webguneko edukia osotzeko eta eguneroko profesionalen behar praktikoa egokitzeko, eta baita errealitateko beharrek jakintza hutsuneak adieraztekoan, ikerketa lerro berriak zabalteko ere.

Oro har, fitxa ezberdinetan aurki daitezkeen osagaiak aztertu ostean, aipagarria da bere aberasgarritasuna, profesionalen eguneroko jarduerarako edukien kontsulta errazten eta praktikotasun handiko erremintak era eskuragarrian uzten baititu. Izaera dinamikoa du, horrelako lanabesen kalitate-ezaugarri bezala; bertoko edukia hilerro berritu eta bi norabideko informazio-trukaketa ahalbidetzen du.


Webgunean zehar nabigatzeari dagokionez, bere diseinu argiak eta edukien koherentziako antolaketak esperientzia errazten dute, oro har tresna erosoa suertatzen delarik. Hala ere, gomendagarria litzateke, *Agora* eman ahalko litzuzkeen fruitu aberatsak kontuan izanda eta dagokion garrantzia eskaintzekotan, gainerako sailek bezala menu nagusian bere fitxa izatea, edozein orrialdetik bertara zuzentzeko aukera eskaintzeko. Egungo egituraketan, behin erabiltzailea webguneko edukietan murgildu denean, *Agora* ikusgarritasuna galtzen baitu eta bere kokapena den atarira itzulera aurkitzea ez da erraza suertatzen. Hau horrela, menu nagusian foroarekin zuzenean lotuko lukeen fitxa bat sortzeak eta atarira itzulera ikusgarriago egiteak, webgunearen kalitatea hobetuko lukeela estimatzen da². Bestalde, "Gurasotasuna" webgunea eguneratutako errekurtsio iturri izanik, garrantzitsua litzateke bere dibulgazioa sustatzea ahalik eta profesional gehien izan daitezen onuradun. Egun, difusioa hileroko buletin informatibo bidez burutzen da, batik bat gizarte zerbitzuetako langile eta hezkuntzako alor

2. Zenbait lotura ez daude edukira ongi zuzenduta iraungi egin direlako. Eta batzuetan, estekaren hizkuntza ez dator bat edukiarenarekin. Arlo tekniko zein edukiaren arduradunek, lotura hauek berrikusi eta eraldaketak egiteak webgunea hobetuko lukeela baloratzen da.

batzuetara zuzenduaz. Interesgarria litzateke zabalkunde kanpaina, besteak beste, eskola eremura irekitzea, "Haurreskola" eta ikastetxeetan "Gurasotasuna" ezagut eta heda dadin.

"Gurasotasuna" webguneaz gain, sarean zehar gaira zuzenduriko kalitatezko beste webgune batzuk ere eskuragarri daude, adibidez: "Chile Crece Contigo", Bilboko Udaleko weborrialdeko familiaren atalean aurki dezakegun "Familiari Haezi" edo eta "Familias en Positivo". Azken hau, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasuneko Ministerioek Udalerri eta Probintzien Espainiar Federazioarekin (FEMP) batera sustatu dute. Bere xedea, gurasotasunaren ikuspegian oinarritutako tokian tokiko familien babesera zuzenduriko politikak bultzatzea da. "Gurasotasuna" webgunea profesionalen soilik zuzenduta dagoen bitartean, "Familias en Positivo" webguneak profesionalen gain, familiei ere espazio bat eskaintzen die, errekurtsio sozioedukatiiboak eta gurasotasunari buruzko informazioa edo eta orientazioa jasotzeko aukera izan dezaten. Aipaturiko webguneek, gaia bereganatzen ari den dimentsioa adierazten digute eta agerian uzten dute, profesionalen teknologia berrien bidez aztergaira sarrera erraztearen garrantzia, behar adinako errekurtsioak eskuragarri izanda, familiek guraso konpetentzia osasuntsu eta eraginkorrak bereganatu ditzaten. Guzti hau kontuan izanik, azpimarratzekoa da Euskal Autonomi Erkidegoan familiekin lanean ari diren profesionalen webgune hau bezalako tresna bat eskaintzearen garrantzia, bertoko zein mundu mailako ikerketa zein jarduerak bilduko dituen, suertatzen diren behar berriei erantzunez eta familientzat ere esparru bat irekiaz. Bide horretatik abiaturik, familien ezinbesteko parte-hartze aktiboaren bitartez, gurasotasunaren prozesuko hezkuntza eta hazkuntza lanetan euren gaitasuna berreskuratuko dute.

Alaitz Etxaniz, Florencia Belén Barreto



ZULAIKA, Joseba
Vieja Luna de Bilbao. Crónicas de mi generación

Donostia: Editorial Nerea, 2015
 252 p. : il. : 25 cm
 ISBN: 978-84-16254-00-225

Joseba Zulaika es el antropólogo vasco por antonomasia, profesor de la Universidad de Nevada (USA) y autor de su reciente obra "Vieja luna de Bilbao", una excelente crónica abigarrada de su generación que es también la mía. Este libro espléndido pasa repaso a la historia viva del País Vasco encarnada en Bilbao, una historia de pasión, muerte y resurrección, de infierno franquista, purgatorio posfranquista y paraíso posmoderno o artificioso en la actualidad.

A continuación realizo una hermenéutica personal de la visión del antropólogo vasco-americano, lo que me permite visitar el País Vasco en general y Bilbao en particular, recordando los años centrales de mi vida dichosa en la Universidad jesuítica de Deusto. En las páginas de este libro se evocan los Altos Hornos y los bajos fondos, la cultura y la incultura, la alegría y el dolor de vivir.